

Begoñako Basilika (Bilbao)

Begoñako elizateko parrokia zen Bizkaiko santutegi bisitatuena, are bere irudi titularra, Andra Mari gotiko bat, 1738an lurraldeko zaindari aldarrikatu baino lehen.

Baserriez osaturiko landa-ingurune batean kokatua, artaditxo baten aurrean eta hiribilduaren sarreran, gaur egungo santutegiak lehengoaren kokaleku bera du elizatearen erdian.

Eraikina

Gauza jakina da 1511. urtean zimendatzen ari zela -Sancho Martínez de Arego harginaren planoen arabera- eraikin handi eta jas nobleko bat. Eraikin horrek hiru nabe luze zituen, elkar mailakaturiko sei tartekoak, eta hiru hormataleko zortzialdeko errematea zuen kapera nagusian.

Amaierako egitura kare harlanduzko hormetan eta bi lerrotan eutsita dago; lerro bakoitzak bost zutarrri ditu, hamazortzi kaperetako gangei eusten dietenak, diseinu anitz eta konplexuko nerbio sare elastiko bat osatzen dutela.

Eraikina XVI. mendearen hasierako gotiko berantiarraren familiakoa da, denboraldi oparoa izan zela arkitektura erregionalari dagokionez. Alabaina, ez du jasotzen agian estilo honen elementurik bereizgarriena dena: nabe nagusiaren perimetro osoa korritzen duen horman, kapera baxuen gainetik, irekitako galeria. Nabeen arteko malkar eskasak egingaitza egiten zuen elementu ikusgarri hori.

Forma gotikoak nabarmentzen dira zutarrri askeetan, eta landaredun kapitela dituzten zutabetxoek osaturiko hormei erantsietan ere. Forma gotiko horiek ikusten dira, berebat, leihoetan -zorrotz eta molduradun-, konbergentzia puntu ugariko nerbio sareez eraturiko gangateriaren ideia orokorrean, giltzarrietan eta janba eta moldurazko arkiboltadun arku zorrotzak dituzten bi alboko portadetan.

Itsasoan negozioak zituzten bilbotarrek debozio handia izan zioten betidanik Begoñako Andra Mariri, bera baitzen

itxaropen izarra, hodeiertz gainean distiratsu, haien itsasontzien singladurak orientatzen zituena. Izan ere, haietarik askok, eskerronekoek, tenpluaren eraikuntza finantzatzen lagundu zuten, basilikako kapiteletan eta leihoetan zizelaturik ageri diren merkatari-ikurrek aditzera ematen dutenez.

Beste debotu batzuen ekarpenek bide emango zuten, lehenengo, portada nagusia -garaipen arkuaren erako eredu errenazentista ederra- eta, gero, korua amaitzeko. Gangak eta sakristia, funtsean Juan Ortiz de Olaeta eta Martín Ibáñez de Zalbidearen obra direnak, XVII. mendean amaituko ziren, eta dorrea, José María Basterrak diseinatua, 1901ean.


Altzariak

Basilikaren barrualdean nabarmentzen dira arestian zaharberriak izan diren mihise batzuk, Ama Birjinaren bizitza kontatzen dutenak. Gauza jakina da Sevillatik datozela -batzuek Murilloren pinturak kopiatzen dituzte- eta Bizkaiara iritsi zirela XVIII. mendearen hasieran. Hormetan badira beste bi istorio: Ramón Elorriagaren olio bat, 1855eko kolera izurria zela-eta Ama Birjina Bilbora prozesioan jaitsi izana oroitarazten duena, eta José de Echenagusaren mihise bat, Begoñako koroapena irudikatzen duena.

Elizan zegoen erretaula barroko bikaina desagertu zen lehenengo Gerra Karlista bitartean, eta 1869an, haren ordez, gaur egun dagoena jarri zen, estilo isabelinokoa eta zururreztatukoa, Modesto Echánizek diseinatua izan zena. Erretaula horren buru da Begoñako Andra Mariren taila gotiko bat (XIV. m.), zur polikromatua egina.

Gainera, ezkerreko nabearen lehenengo tartean bada sagrario gotiko delikatu bat, harrizkoa, burdinazko atetxoa duena, Nabarnizko elizatik etorria.

Testua: J. R. Valverde.



Begoñako Basilika

Bilbao. (*Begoñako Andra Mari*.
Tf: 944 127 091).

Nola heldu:

Alde Zaharretik joan daiteke, Mallonakp bidarrian gora, edo Udaletxetik abiatzen den Zumalakarregi etorbideetik.

Bisiten ordutegia:

Astegunetan:
8:30 - 13:30 eta 17:30 - 20:30
Jaiegunetan:
19:30 - 13:30 eta 17:30 - 20:30

Kultua:

Astegunetan:
9, 11 eta 18etan
Zapatuetan:
9, 11, 18, 19 eta 20etan
Jaiegunetan:
10, 12 edo 13, 18 eta 20etan

(Kultua ematen ari den bitartean ezin izango dira elizak bisitatu).

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Bilbao)

- Begoñako igogailua.
- Mallonako arkua.
- Gurutzeko auzoa (langileen etxeak).